

Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera % 3,7 hazi zen 2024ko bigarren hiruhilekoan


Eraikuntzak % 4,6 egin du gora, eta Ingeniaritza Zibilak % 1,8

Euskal AEko eraikuntzaren sektoreko jarduera, prezio korranteetan, 2024ko bigarren hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko berean baino % 3,7 handiagoa izan da, Eustatek landutako datuen arabera.

Hiruhileko honetako prezio korranteen urte arteko igoera, egutegiaren ondorioak atera ondoren, *Eraikuntzaren* azpisektoreak izandako portaera positiboak (% 4,6ko igoera) eta *Ingeniaritza zibilaren* azpisektoreak izandakoak (% 1,8ko hazkundera 2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean) azaltzen dute.

≡ Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturako indizea obra-motaren arabera

Urte arteko tasa. Egutegiko eraginak zuzenduta



Iturria: Eustat, Eraikuntzaren koiunturako indizea (EKI)

Sektoreak hiruhileko honetan eta aurreko hiruhilekoan (2024ko lehen hiruhilekoan) izan dituen jarduerak alderatuz gero, Eraikuntzaren koiuntura-indizea % 2,0 igo da balio nominaletan edo prezio korranteetan, dagozkien urtaro-efektuak atera ondoren. *Eraikuntzan* jarduerak % 3,1 egin du gora aurreko hiruhilekoaren aldean; *Ingeniaritza zibilean*, berriz, % 1,4 egin du behera.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturako indizea. Aldakuntza tasak. Uneko prezioak (p). 2024/II

	Uneko prezioak		
	t/t-4	t/t-1	At/At-4
Indize orokorra	3,7	2,0	3,4
Eraikinak	4,6	3,1	3,3
Ingeniaritza zibila	1,8	-1,4	3,6
Araba/Álava	3,0	1,6	3,3
Bizkaia	4,5	1,7	4,7
Gipuzkoa	2,6	2,7	1,3
Indize orokorra higiezinaren sustapenik gabe	2,1	1,6	1,9
Higiezinaren sustapenik gabeko eraikuntza	2,3	2,7	1,2
Landunkopuruaren indizea	0,2	0,5	0,0

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

t/t-4 Urte arteko aldakuntza-tasa. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t/t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza-tasa. Datu desestazonalizatuak

At/At-4 Urte arteko aldakuntza-tasa metatutako aldian, urteko 1. hiruhilekotik behatutako azken hiruhilekora arte (At), aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean (At-4). Egutegiaren ondorioen datu zuzenduak

Data 2024ko Irailaren 6a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren koiunturako indizea

Bizkaian eraikuntzaren sektoreak urte arteko % 4,5 egin du gora 2024ko bigarren hiruhilekoan, Araban % 3,0 eta Gipuzkoan % 2,6. Aurreko hiruhilekoaren aldean, Eraikuntzaren koiuntura-indizea % 2,7 igo da Gipuzkoan, % 1,7 Bizkaian eta % 1,6 Araban.

Behin *Higiezinaren sustapenaren* jardueraren eragina aterata, *Eraikuntza* jardueraren hazkundera, urte artean, % 2,3koa da eta hiruhileko artean % 2,7koa. Eraikuntzaren sektorea —*Higiezinaren sustapena* kontuan hartu gabe— % 2,1 igo da 2023ko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta % 1,6, berriz, 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean.

Langile okupatuen indizea, aurreko hiruhilekoaren aldean % 0,5 igo ondoren, 2024ko bigarren hiruhilekoan 2023ko hiruhileko berean ikusitakoa baino % 0,2 handiagoa izan da.

Informazio-oharra

Eraikuntzaren koiuntura-indizearen erreferentzia-urtea berritzeari ekin zaio, eta 2021. urtea izango da indizearen oinarri berria. Oinarria aldatzeko prozesuan, baliozkotzeko eta egozteko metodoak hobetu dira, baita indizeak sortzekoak ere. Horiek, lagina zabaltzearekin eta aztergai den biztanleriaren ordezkaragarritasun hobearekin batera, 2021etik aurrera eraikuntza-sektore osoaren jarduera-indizeak lortzea ahalbidetzen dute Lurralde Historikoan. Higiezinaren sustapenaren jarduera ateratzeko indizeak ere eskaintzen dira; izan ere, jarduera horrek aldakortasun koiuntural handiagoa du sektoreko gainerakoek baino.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea lagingaren % 83,3ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea Sebastián,1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62